

EUSKARA ETA NOTARIOAK: *EUSKAL ESNALEA ALDIZKARIA (1908-1931)*

Andres Maria Urrutia Badiola

1. EGITASMO BATEN NONDIK NORAKOAK

Badator gorantz, azken urteotan bederen, halako pentsamolde berria, euskararen aldeko lana oraintsukoa dela uste eta sutsu defendatzen duena. Salbuespena, halakorik izatekotan, gerra aurreko eta garaiko gorabeheretan gorpuzten da, bertan eteten baita, askoren iritziz, euskararen kontrako soka luze eta sendoa.

Hartara, ahaztu egiten da, sarriegi beharbada, euskararen aurkako horri buelta emateko eginahaletan euskaldun frankok jardun duela, aldi eta inguru guztiz bestelakotsuetan. Historiak aipatu digu XX. mendearen hasiera, besteak beste, Hego Euskal Herrian Sabino Arana eta Resurrección María Azkueren euskalgintza gogorarazteko. Bi horiek, bistan da, bidegile izan ziren, bakoitza bere aldetik, euskarari gizarte-esparruak bermatzeko aldarrean.

Euskara aitzina zetorren, bilakaera tinkoak bultzatua. Norabidea hartua zuen, eta noranahikoa nahi zuten ordukoek. Esan eta egin, hala ondu zuten eurek, euskararen susperraldia lortzeko eta eskuratzeko.

Orduko lanak, zernahi gisaz ere, badu oraingotasunik. Helburuetan, bi-bitara dihardugu egun ere: bateko, euskararen estatusa areagotu, urterik urte esparru berriak erdietsi nahian; besteko, euskara bera doitu eta gaitu, arlo berri horiek eskatzen dutenari aurre egin ahal izateko.

XX. mendearen hasieran, Hego Euskal Herrian behintzat, esparru-irikiera hori bizi-bizia zen. 1876. urteaz geroztik foruak galdurik, Araba,

Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa euskal herrialdeek erregimen berezia zuten, neurri batean bederen, batez ere zerga- eta administrazio-kontuetan. Hortaz, eurengainak ziren barne-jardunean. Mugak zituen horrek, jakina, Espainiako erregetza, konstituzio liberal eta estatu-antolakuntzaren aldetik.

Ingurumari horretan sortu zen, 1908. urtean, *Euskal Esnalea* elkartea¹, Donostian bertan. Aldarrikatu zuen hark bere mezua, euskarari zegokionez. Izen bereko aldizkaria ere, aurki izan zuten eskuan orduko euskaldunek. Ezin argiago mintzo zitzaizen hantxe euskal irakurleei:

Argiro diyo gure izenak au guziya: gerok eta beste esnaratu naye-an irten gara.— Euskera (dana dan letz esateaz kalterik ez dakar) eroriyaz aspaldichotik dator: gure aurre-aurrekoetatik. Len zituen itz asko galdu ditu.

[...] Antziñako izen-itz zarren batzuek dakizkienak bildu beitzia, eta ezarriko ditugu; artarako gai danak, berriyak sortu beitzia.

[...] EUSKAL-ESNALEA euskaldunekiko auzitara ez dator. Ez gatoz nasketa billa, ez gatoz ukabil-makilka iñori ekitera; ez gatoz euskaldun ari, edo euzkotar oni, eragozpen ta sarerik jartzera, ez gatoz au t'ura maseatzeko asmotan...

[...]

EUSKAL-ESNALEAREN LANA:

Lenengo zatiya: IZKUNTZAZ.— Emen mintzatuko gera Euskerazko itz, eta batez ere itzen joskeraz. Joskeraz beintzat, eta ¿bai al dakizute zergatik? Euskal-joskeraz euskaldunik geyenak (agiyan guztiyok) osoro aztuta bizi geraldako. Itz banakaz asko ta askok egin dute lana; guk ere egin nai genduke; bañan itzak itzein jostez, nai ta nai ez aurrenetik beintzat, geigo egin bearko.

[...]

Laugarren zatiya: EUSKERAGATIK.— Zati ontan esango degu Euskeraren alde zeñek, zer, non lan egin duen, eta egiten ari dan?

Langintzarako egitasmu zabala, beraz, *Euskal Esnalearena*. Proposamenak, hala ere, sarritan gertatu dira hilak eta eragingabeak euskararen alorrean. *Euskal Esnaleak*, aldiz, jarraitutasunez gauzatu zuen bere egitekoa, alegia, euskararen aldekotasan hori, Gregorio Mugica gizaseme bipil eta ekinaren zuzendaritzapean, Mugica bera 1931. urtean hil arte. Ekarri ere, haren heriotzak ekarri zuen, urte berean, aldizkaria ostendu eta desagertzea.

Bien bitartean, 1908-1931. urteetako aldikada horretan, luze, zabal eta sakon jardun zuen *Euskal Esnaleak* euskararen defentsan. Zertan eta nola nabarmendu zen aztertua izan da jada, eta alferrekoa izango litzateke esana berridaztea.

¹ DÍAZ NOCI, Javier: *Euskal prentsaren sorrera eta garapena*, Cuadernos de Sección. Medios de comunicación, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1995, 63. orrialdetik 65.erakoak.

² ZERTARA?, *Euskal Esnalea*, 1 (1908), 1 eta 2. orrialdeak.

Bada, ostera, aldi hartako ekintzetan zer gogoratu eta gurera ekarri. Sustapen-lana dugu, hemen eta orain, jorratu beharrekoa. Horrela egitea, esan gabe doa hori ere, adibidetsu, erakusgarri eta, areago dena, eredugarri gerta dakiguke, euskalgintza bideratzeko prozesuan.

Kontua dezagun bilba: euskararen ezaupidea non, eta kargu eta arduradun publiko batzuen izendazioetan. Horixe dugu egitekoa, hain zuzen ere, notarioen alorrean euskararen zeregina nola zehaztu eta gauzatu zen XIX eta XX. mende bitartean, Hego Euskal Herrira lehen eskribau erdaldunak etorri ahala.

Beude hor lorratzak. Norabide harildua, inon izatekotan, *Euskal Esnalea* aldizkarian da, hangoak izango baitira gure lekukotzak. Horien gogoia, bistan da, euskararen aldeotasuna zen, eta hortik ere, jakina, euskarari orduko lege-eta gizarte-baliabideek eskain ziezazkioketen zirrikituak agerraraztea, euskararen mesederako bidegintzan.

2. URRUNTZE BATEN HISTORIA. NOTARIO-LEGERIA ETA HIZKUNTZAK

Espainiako estatuaren historiak aldi berezia bizi zuen XIX. mendean. Izan ere, gizaldiaren erdirantz, lege-gorabeheretan estatuaren bat-egite prozesua aurrera zihoala, lege orokorren txanda iritsi zitzaion hainbat arlori. Cadizko Konstituzioaren agindua aldarrikatu zenetik (1812) zuzenbide zibila batu ezineko estatuak asmatu zuen zeharkako lege-bilketa, arloz arlo ontzekoa. Besteak beste, notarioen arloan. Aspaldiko historia zuen eskribauen munduak Espainia osoan. Elkargoetara bilduak, notarioek gorde egin zituzten euren barne-araubidea eta antolakuntza. Orobat euren hizkuntza, zenbait herrialdetan gaztelania ez zena. Nabari-nabaria da hori, kasurako, Katalunian. Bertan, Planta Berriko Dekretuak gorabehera (1713)³, notarioek katalana erabili zuten, ondo frogatua denez⁴. Beste herrialde batzuetan,

³ FERRER I GIRONÉS, Francesc: *La persecució política de la llengua catalana*, Cultura Catalana Contemporània, XVII, Edicions 62, Bartzelona, 1985, 70. or.

⁴ SOLÉ I COT, S.: «La llengua dels documents notariaus catalans en el període de la Decadència», *12 Recerques. Història, Economia, Cultura*, Curial, Bartzelona, 1982, 44. orrialdetik 46. erakoak: «*Avanç decidit del castellà durant tot el segle XIX*. La progressiva utilització del castellà en la redacció dels documents notariaus fou deguda a una sèrie de circumstàncies que s'iniciaren a la segona meitat del segle XVII i que culminaren al darrer terç del XIX amb la prohibició expressa de redactar en cap més llengua que no fos la castellana tota mena d'instrumentos públics. [...] Del segle XIV al XIX són sis segles de redacció ininte-

Galizian esaterako, kontu zaharragoa zen gaztelaniaren sarrera agiri publiko-etan⁵.

Euskal Herrian, hala ere, notarioen egoera erabat diglosikoa zen. Alde batetik, notarioak ziren herri xehearekin harreman estuak zituzten profesionalak. Bestetik, foru-sistemaren barruan, notarioak bertakoak izan eta hizkuntzen arteko lotura bermatzen zuten, ahozko interpretaritzaren bitartez. Euskarazko testu idatziak, haatik, urri eta bakan ikus daitezke Euskal Herriko notarioen protokoloetan. Dena den, euskal hitzak ez ziren guztiz arrotzak notarioen testugintzan⁶.

Behar-beharrezkoa da, horratio, herrialdez herrialdeko egoera azaltzea. Egin-eginean ere, hurrengo baterako alboratuko ditugu Ipar Euskal Herriko notarioen autu-mautuak, azterketa berezia eskatzen dutelakoan.

1862. urteko lege espainiarrak bi zatitan banatu zuen Hego Euskal Herria, notario-antolakuntza ikuspegitik. Hortaz, Bizkaiko eta Arabako herrialdeak Burgosko Notario Elkargoaren barruan geratu ziren. Gipuzkoa eta Nafarroa, berriz, Iruñeko Notario Elkargokoak izan eta norabide desber-

rrompuda de documents notariales en catalá, són centenars de milers de folis escrits en la nostra llengua que se'ns han conservat fins avui. I dubto que aquesta riquesa històrica i lingüística la puguem trobar enlloc més». Horren kontra, MARFANY, J. L.: *La llengua maltractada*, Biblioteca Universal, 159, Editorial Empúries, Bartzelona, 2001, 364. orrialdetik 365. erakoak: «En la mesura en què no ho és, d'altra banda, és a dir, en la mesura en què s'allunya de les fórmules consuetudinàries, la llengua dels notaris no crec que tingui cap valor històric especial: no veig que sigui ni millor, ni pitjor que el català que escrivien les persones més o menys cultes de l'època, ni se'n diferenciï en res. D'altra banda, la meua impressió —que no pot passar, ho admeto, de ser això— és que la pràctica lingüística depèn estrictament de cada notari: que una mateixa persona atorga o contracta escriptures en una llengua o l'altra segons el notari; que, quan un notari passa a usar el castellà, l'usa ja pràcticament sempre, sense excepcions; que, quan un notari castellanitza la seva pràctica, la seva notaria queda ja irreversiblement castellanitzada. [...] I no he pogut observar absolutament cap diferència entre el seu comportament lingüístic i el dels altres individus del mateix sector social. [...] En resum: mentre un estudi sistemàtic no demostrï el contrari, no veig cap raó per a considerar la pràctica notarial com a un àmbit d'interès especial dins l'estudi de la història de la diglòssia a Catalunya i molt menys encara per a atribuir a la persistència del català en certs aspectes de la dita pràctica cap valor altre que el d'una romanalla més o menys ritual»

⁵ FERRO COUSELO, Xesús: «Cómo e por qué os escribanos deixaron de empregar o galego», *Homaxe a Ramon Otero Pedrayo*, Vigo, 1983, 251. orrialdetik 253. erakoak.

⁶ OSÉS, C.: «Léxico vasco en documentación notarial guipuzcoana», *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, 36 (1992), 819. or.: «Los escribanos utilizaban el léxico vasco para aquellas esferas lingüísticas más alejadas del vocabulario común de las piezas que redactan, cuando se hacen necesarias denominaciones de la vida diaria para realidades en que no participa el "romance"».

dinekoak, antza denez, euskarari zegozkionetan. Bigarren arlo honetan kokatzen da, oso-osorik, *Euskal Eснаlea* aldizkariaren ekina, notarioen euskara-ezagupidea zela eta.

Zatika eta aldizka plazaratu beharrak, nolanahi ere, sailkatze berezia dakar. Horrexegatik, hain zuzen ere, bereizteko premia dago: hasteko, garai hartan indarrean egon ziren lege eta araudiak, eta, horren hurrengo, halakoek Hego Euskal Herriko herrialdeotan izan zuten eragina.

2.1. 1862. urteko legea

Harako legeak, 1862. urtekoak, argiro erakutsi zuen notario bidezko agiri-ien hizkuntza zein eta zertarako, salbuespenei leku gutxi eginez:

Artículo 25: Los instrumentos públicos se redactarán en lengua castellana, y se escribirán con letra clara, sin abreviaturas y sin blancos.

Tampoco podrán usarse en ellos guarismos en la expresión de fechas y cantidades.

Los Notarios darán fe de haber leído a las partes y a los testigos instrumentales la escritura íntegra, o de haberles permitido que la lean, a su elección, antes de que la firmen, y a los de conocimiento lo que a ellos se refiera y de haber advertido a unos y a otros que tienen el derecho de leerla por sí.

Aurreko esanaren ildotik, hala ere, bada zer arakatu. Agiri publikoan gaztelaniaren erabilera bermatu zuen legeak. Ez, ostera, erabat galarazi aurretiazko mundutik zetorrena. Horretara, osterantzeko hizkuntzak erabiltzea, legearen araudiak ahalbidetu zuena.

Ahalbidetze horretan bi ikuspegi ziren nabarmentzekoak: lehena, XIX. mendeko espainiar estatu nazionalean ezohikoa, funtzionario publikoak gaztelaniaz bestelako hizkuntzak jakitera behartzen eta jakite hori saritzen zuena; bigarrena, hizkuntzaren aniztasuna agiri publikoetan onesten zuena, betiere gaztelaniari lehentasuna bermatuz.

2.2. 1862. urteko araudia

1862. urteko notario-araudiaren artikulua esanguratsu oso gertatzen dira Euskal Herriaren kasuan.

Artículo 7. Los aspirantes a Notarías en distritos donde vulgarmente se hablen dialectos particulares, acreditarán que los entienden bastantemente.

Artículo 71. Las escrituras matrices se redactarán con arreglo al artículo 25 de la Ley, usando un estilo claro, puro, preciso, sin frase o término alguno oscuro ni susceptible de ambigüedad.

Cuando se hubiere de insertar documento, párrafo, frase o palabra de otro idioma o dialecto se extenderá inmediatamente su traducción, o se explicará lo que el otorgante u otorgantes entienden por la frase, palabra o nombre exótico.

En el caso del párrafo 3º del art. 25 de la ley, los Notarios explicarán en su dialecto particular a los otorgantes y testigos la escritura extendida en castellano, si hubiere alguno que no entendiere este idioma.

Bistan da horrek ekar zezakeen eragina euskararen kasuan, bi artikuluetan adierazten baitzen ordu arte Euskal Herriko esparru euskaldunetan eguneroko izate hutsa zena, alegia, eskribauak, lehen esan legez, hitzaren bitartez bi munduren arteko itzultzaile izatea. Hasieran, euskarazko mundua, aldi horretan, oraindik ere, euskaraz elebakarra zena eta horretarako bizimodua zuena; jarraitzeko, bertoko mundu juridikoa, gaztelaniaz mamitu eta batzen zena.

Bazen, hala ere, artikulua horietan liskarraren hazia. Euskaraz jakin ez eta Euskal Herriaren esparru euskaldunetan notario ari nahi izatekoek oztopo zuten hizkuntza-ezjakintasun hori. Inondik ere, estatu bateratu baten funtzionario askorentzat debeku onartezina. Halaxe gertatu zen, eta ibilian-ibilian, laster altxatu ziren ahotsak, notario-araudi horren aurka. Askorentzat, esan beharrik ez dago, baztertzaila oso zen xedapen hori, eta alde guztietatik deuseztatzeko modukoa. Notario-ogibidea zela eta, idazleen iritziak, gaztelaniaz bestelako eskualde hizkuntzadunenak, batez ere, erabat aurkakoak ziren, aurrerago agertuko denez.

2.3. 1874. urteko araudia

Urteak joan, urteak etorri, notario-araudiaren eraberritzea gertatu zen 1874. urtean. Beste behin ere, lehengo artikuluen esana bera edo antzekoa, zenbakiak desberdinak baziren ere:

Artículo 4. [...]

Los aspirantes a Notarías en distritos donde vulgarmente se hablen dialectos particulares, acreditarán que los entienden bastantemente.

Artículo 62. Las escrituras matrices se redactarán con arreglo al artículo 25 de la Ley, usando un estilo claro, puro, preciso, sin frase o término alguno oscuro ni ambiguo y observando siempre como reglas imprescindibles la verdad en el concepto, la propiedad en el lenguaje y la severidad en la forma.

Cuando se hubiere de insertar documento, párrafo, frase o palabra de otro idioma o dialecto se extenderá inmediatamente su traducción, o se explicará lo que el otorgante u otorgantes entienden por la frase, palabra o nombre exótico. Están fuera de esta prescripción las palabras latinas ad bona, ad litem o ad lites con relación a los curadores, a priori o a posteriori, inter vivos y otras que así en el foro como en el lenguaje común son usuales y de conocida significacion.

Tambien podrán los Notarios testimoniar por exhibición documentos en latín o en cualquier otra lengua pero en este caso se entenderá que su fé se refiere solamente a la exactitud de la copia material de las palabras y no acerca de su contenido.

En el caso del párrafo 3º del art. 25 de la ley, los Notarios explicarán en su dialecto particular a los otorgantes y testigos la escritura extendida en castellano, si hubiere alguno que no entendiere este idioma.

[...]

Kritika zorrotzak jaso zituen horrek. Berehala sumatzen ditugu halakoak, notarioen eginkizuna aztertzen dutenen artean. Horien adierazle, kasurako, Miguel Fernandez Casado idazlea, 1877. urtean *Tratado de Notaría* izeneko liburua ren egilea. Garden erakutsi zituen hark bere usteak, aserre bizioan ziharduela araudiaren zazpigarren artikuluar buruz:

Siempre hemos mirado con prevención este artículo reglamentario, que parece inspirado en el exclusivismo provincial. [...] Sobre todo no se nos alcanza la razón en virtud de la cual sea necesario el conocimiento de dialectos a los Notarios y no lo sea á los Jueces, Registradores, Abogados del Estado y en general á todos los funcionarios y empleados públicos, que diariamente vemos destinados á dichas regiones sin que á nadie se le ocurra preguntarles si saben ó no expresarse en valenciano, catalán o vascuence. [...] Es, por tanto, este un precepto que podría desaparecer del reglamento sin que su falta se notara en manera alguna. [...] No hemos encontrado disposición alguna que regule la manera de probar este requisito, y creemos que en la práctica el Tribunal de oposiciones dirige al aspirante algunas preguntas en el

*dialecto que corresponda y dicho aspirante debe contestarlas en el mismo dialecto...*⁷

Lege-egoera horren aurrean, berehalako itauna da ea euskararen jakite hori zin-zinezkoa zen ala itxura hutsezkoa. Notario berrien inguruan, eta lehen aipatu bezala, autua bitara zetorren euskararen esparruan. Burgosko Notario Elkargora bilduta zeuden Araba eta Bizkaia. Bertan zer gertatzen zen arranguratsu azaldu zuen Resurreccion M. Azkueren zuzendaritzapeko *Ibaizabal* aldizkariak.

Bazekien jakin hark Bizkaian legea ez zela betetzen. 1902. urteko 3. zenbakian Bilboko euskaldunentzat ari da aldizkaria. Euskaldunak nahi ditu bilbotarrak, eta euskara ikastea gogoko izan dezatela. Notarioen azterketak gogorarazten ditu:

*Bizkaian ez, baiña Guipuzkoan notario izateko euskerazko azterketak edo esamiñak dagoz Panplonan*⁸.

Gipuzkoa eta Nafarroari dagokionez, lekukotasunak aipa daitezke, lege horren betetzea moldatzen dutenak. Lehendabizikoa, orduko *Gazeta de los notarios* aldizkariak dakarkigu, 1893. urtean:

*Sobre la necesidad de que los Notarios ejercientes en el País Vasco conocieran el euskera, la GN daba cuenta de lo siguiente: "Parece que siendo doce los que solicitan la vacante de una de las Notarías de Tolosa, y resultando que en la clasificación que ha remitido la Junta Directiva del Colegio de Pamplona a la Dirección General, se ha solicitado el examen de vascuence para todos los aspirantes, hasta tanto que se averigüe por ese medio si todos ellos poseen dicho dialecto, como es necesario, se suspende todo nombramiento. En efecto, la posesión del vascuence es un requisito indispensable para que los Notarios puedan ejercer bien su ministerio en el territorio de aquellas provincias"*⁹.

Berrikitan ondu du Nagore Yárnoz notario nafarrak *Iruñeko* Notario Elkargoaren historia, eta horra alderatu du, gai askoren artean, euskararena ere. Gogor jokatu zuen, antza denez, 1901. urtean, hango Notario Elkargoak, euskararen jakitea zela eta:

⁷ FERNÁNDEZ CASADO, M.: *Tratado de Notaría*, Imprenta de la viuda de M. Minuesa de los Ríos, Madril, I. liburukia, 1895, 162 eta 163. orrialdeak.

⁸ "Bilboko euskaldunentzat", *Ibaizabal*, 3ⁿ gueia (1902), 1. orrialdea.

⁹ "Recortes de hace un siglo". MARZO DE 1893, *Gazeta de los notarios*, 44 (1993).

... En el terreno del derecho constituyente cabría discutir si es necesario o no que el Notario que ha de prestar sus servicios en pueblos donde vulgarmente se habla el vascuence conozca esta lengua, pero en el caso actual esa discusión es inútil, y únicamente importa el exacto cumplimiento del artículo 4º del Reglamento. [...] Y además entiende la Junta que el Notario se ha hecho para servir al público y no el público para comodidad del Notario y que el que quiere ser Notario en pueblos donde vulgarmente se habla el vascuence, debe ante todo conocer el idioma¹⁰.

3. EUSKAL ESNALEAREN EKINA

Aurrekoak gorabehera, egunerokoa ez zen horren distiratzalea. Izan ere, lege eta araudien hizkietan argi zegoena, jardunean, aldiz, behatopa eta triki-mailua zen. Horrexegatik, hain justu ere, behin eta berriro aldarrikatu zuen *Euskal Esnaleak* aurkako iritzia. Garramura osoz jardun zuen aldizkariak, berarentzat lerrabide nagusi zena, alegia, euskararen defentsa, notarioen izendazioetan defendatuz.

1908. urtean bertan, *Euskal Esnaleak* agerian jartzen du notario-araudiaren esana:

*En el Reglamento general del Notariado, hay un artículo, el 4º, cuyo 2º párrafo dice así: "Los aspirantes á Notarías en distritos donde se hablen dialectos particulares (sic), acreditarán que lo entienden bastante"*¹¹.

Legearen hitzak ematen dio oinarri aldizkariari kritika sakona egiteko, lege-agindu hori nabarmen urratzen delako:

*Nos consta que actualmente hay en Gipuzkoa y Navarra cuatro notarios que no han acreditado conocer el bascuence y son: el de Burguete, el de Lecumberri, el de Elgoibar y uno de San sebastian*¹².

Dei zabala ere luzatzen du aldizkariak, halako izendazioen aurrean erne egoteko, euskarari legez zor zaion begirunea ezerezean gera ez dadin:

¹⁰ NAGORE YÁRNOZ, J. J.: *Historia del Iltre. Colegio Notarial de Pamplona*, Ilustre Colegio Notarial de Pamplona, Iruñea, 1997, 125. or.

¹¹ "Contra el euskera", *Euskal Esnalea*, 2 (1908), 26. orrialdea.

¹² Ídem.

La obra que Euskal-Esnalea se esfuerza por llevar a la práctica, es de índole social y por tanto requiere la cooperación activa y constante de los Sres. Socios. Hoy comenzamos a solicitarla, suplicándoles nos suministren noticias cuando ocurran algunos de los siguientes casos en los pueblos o comarcas que habiten:

1º. *Si para país vascongado se nombra algún Párroco ó Notario que no posean suficientemente el vascuence.*¹³

[...]

Bi urte geroago, 1910. urtean, hari beretik dator kezka:

Hay disposiciones vigentes que ordenan á los Notarios el conocimiento del lenguaje que vulgarmente se habla en el territorio donde ejercen sus funciones. [...] A pesar de toda la lógica, la orden es necesaria. Y además... no se cumple. A un Notario que viene á Euskalerrria no se le exige el conocimiento del euskera. ¿Para qué? ¿Qué falta le hace á un Notario saber euskera para hablar casi exclusivamente con gente que no sabe otra lengua que el euskera? Ninguna. ¿Verdad? EUSKAL-ESNALEA cree lo contrario y está dispuesta a ayudar con todas sus fuerzas á la Excm. Diputación de Guipúzcoa que, unida á las demás del país vasco, va á trabajar en ese sentido. Cumpliendo un acuerdo de la Junta General última, se ha cursado el siguiente telefonema: «Excmo. Sr. Presidente del Consejo de Ministros. Madrid. Sociedad Euskal-Esnalea, reunida en Junta General, protesta contra vulneración sistemática disposiciones vigentes que exigen conocimiento idiomas locales para provisión Notarías. Ejemplo respeto leyes deben darlo los Gobiernos.— El Presidente, Arturo Campión»¹⁴.

1911. urteak dakar erpina, eskabide eta kritiken ikuspegitik. Izatez, Arturo Campion euskaltzale nafarrak, lumaren bidez salatzen du, lege eta araudiaren urratzea dela eta, euskaraz ez dakiten notarioak izendatzea lurralde euskaldunetarako. Hitz gogorrek dira horiek. Egoeraren erantzuleak norzuk izan daitezkeen ere zehatz azaltzen du:

Una de las pocas prescripciones del poder central con una sombra de respeto siquiera á las lenguas y dialectos distintos del castellano, hablados en España, la están pisoteando en Navarra y en Gipúkoa de una manera escandalosa. [...] La Sociedad Euskal Esnalea que presido, ha protestado, sin éxito, contra los abusos. Solicitó y obtuvo la coopera-

¹³ "Circular", *Euskal Esnalea*, 11 (1908), 26 eta 27. orrialdeak.

¹⁴ "El euskera y los notarios", *Euskal Esnalea*, 22 (1910), 208. orrialdea.

ción del diputado á Cortes señor Sánchez Marco, y éste dirigió una llamada á la ley al Gobierno. El ministro contestó lo que suelen esas bacterias de la desmoralización pública, y el nombramiento de Notarios inhábiles continúa. Antes solía arrimarse al expediente una certificación falsa, expedida por la complacencia de algún alcalde, de que el intruso poseía el idioma basko. Hoy, según dicen, hasta esa cautela ha desaparecido, y se falta á la ley cínicamente, con la guapeza de los legendarios bardeneros. ¿El Colegio Notarial de Pamplona existe? ¿por qué se cruza de brazos? ¿Acaso la legislación centralista vigente no le concede ni aún el derecho de quejarse? ¿ó es que no le molesta el escandaloso desafuero? Verdad es que los notarios, hijos de la tierra, entre quienes se cuentan excelentes patriotas, se van quedando en minoría¹⁵.

Harenak ere, antza denez, oihartzuna izan zuen notarioen artean, eta eztabaida latzak ere sortu, artikuluan aipaturiko notarioek aurka egin ziotelako Campion jaunari¹⁶.

Euskal Esnaleak, beste behin ere, urte berean argitaratu zuen notario baten eskutitza, gai hauetan erabat argigarri izan daitekeena. Hasteko, eta gutunaren atari, aldizkariak bere betiko usteari oratzen dio:

*EUSKAL-ESNALEA ha defendido siempre la opinión de que un notario que desconoce euskera no debe ejercer sus funciones en Euskalerría. Un señor notario viene hoy á decirnos claramente que un notario que desconoce el euskera no puede ejercer sus funciones en el país vasco. Perfectamente; estamos del todo conformes...*¹⁷

Notario hura Francisco Nuñez jauna zen. Alegria herrirako izendatua eta euskararen jabe, agidanez, ez zena.

Lehenez ere, notario artikuluko-egileak lege-agindua indarrean ote dagoen ihardesten dio bere buruari, irakurlearen aurrean:

La primera cuestión que al articulista se le ocurre plantear es la siguiente: ¿está vigente el párrafo segundo del artículo 4º del reglamento de Notariado? A nadie debe extrañar que nos formulemos esta pregunta; pues es tal la confusión de preceptos relativos al Notariado,

¹⁵ "El euskera y los notarios", *Euskal Esnalea*, 7 eta 8 (1911), 97 eta 98. orrialdeak.

¹⁶ URMENETA PURROY, B.: *Navarra ante el vascuence: Actitudes y actuaciones (1876-1919)*, Nafarroako Gobernu. Hezkuntza eta Kultura Departamentua, Iruñea, 1996, 207. orrialde-tik 220.erakoak.

¹⁷ "El euskera y los notarios". LA OPINIÓN DE UN NOTARIO, *Euskal Esnalea*, 5 (1911), 67. orrialdea.

*que es muy difícil afirmar con seguridad cuáles son las disposiciones vigentes, y cuáles las derogadas. Por otra parte, admitiendo la vigencia literal de la disposición aludida, cabe siempre preguntar si en la práctica se cumple*¹⁸.

Gero ere, haren aburuz, uskara jakin gabe, ezin notariotzan jardun:

*Desea el articulista que sus lectores se fijen por un momento en el supuesto siguiente: un aspirante al Notariado es nombrado para una notaría, por ejemplo, de Guipúzcoa, donde casi exclusivamente no se habla otro idioma que el vascuence. Su extrañeza (la del aspirante) no tiene límites cuando al llegar al lugar de su residencia se encuentra con que el idioma castellano es poco menos que desconocido. ¿Cómo autorizar en este país? Y claro es; no autoriza, porque no entiende á la gente; y porque la gente prescinde completamente de él, al percatarse que el notario no les comprende, y aun arrostrando molestias de viaje y realizando mayores gastos, se va al notario de al lado, que es vasco*¹⁹.

Baldintza horien aurrean, zer egin? Nuñezen aburuz, irtenbideak mugatuak dira:

1^a. Que el notario aprenda vascuence. [...] *Es un estudio que ha debido hacerse á priori y que no puede ni debe hacerse á posteriori. Mientras se hace ese estudio ¿qué es lo que hace el notario?*

2^a. solución.— Que dimita la notaría. [...] *Pero... ¿y la carrera, las oposiciones ganadas, el porvenir?*

3^a. solución.— Esperar un traslado. [...] *Mientras tanto, no se sabe con qué comer.*

4^a. solución.— Permutar. [...] *Inconveniente: la muerte por consunción.*

5^a. solución.— *Que el ministro le traslade forzosamente.*

6^a. y última solución.— El suicidio. *En vista de que es imbécil estar tres años de notario, sin ser notario, para aprender un idioma arcaico y dificultísimo; de que es una locura abandonar el cargo cuya conquista tanto trabajo costó, para quedarse en medio del arroyo con la perspectiva de tener que empezar de nuevo otra peregrinación oposicionil para la que faltan las fuerzas; de que es necio esperar en tras-*

¹⁸ "El euskera y los notarios". LA OPINIÓN DE UN NOTARIO, *Euskal Esnalea*, 5 (1911), 68. orrialdea.

¹⁹ "El euskera y los notarios". LA OPINIÓN DE UN NOTARIO, *Euskal Esnalea*, 5 (1911), 68 eta 69. orrialdeak.

*lados y permutas; y que el esperar en turnos forzosos el cumplimiento del artículo 4º del reglamento y en medios fáciles y razonables es de una absoluta idiotez, el articulista aconseja sinceramente á los no pocos notarios de su cuento que se suiciden. Es el único camino*²⁰.

Iritziak iritzi, *Euskal Esnalearen* jardunak aurrera jarraitu zuen, euskararena notarioen alorrean finkatzeko asmoz, araudian legezkoa zena benazko eginez. 1916. urterako aldarrikatu zen elkarteren batzar nagusia. Bertan, ostera ere, notarioen gaia aipagarri:

Vea el lector lo que concisa y claramente pedimos:

A las Diputaciones.— [...] 2º *Que trabajen por conseguir que las disposiciones vigentes en materia de nombramiento de notarios para el País Vasco, las cuales exigen de éstos el conocimiento de nuestra lengua, se cumplan debidamente, cosa que en la actualidad no tiene lugar*²¹.

Ahaleginetan ziharduen elkarreak helburu hori eskuratzeko. Bi aipamen berezi dira, urte berean, gaiari buruzko gorabeheretan, Madrileko Parlamentuak eztabaidetan diharduen bitartean:

*Batek bakarrik, Esteban Bilbao jaunak, esan zuan zerbait euskeraren alde: euskeraz ez dakien eskribaurik ez bidaltzeko gure errira. ¡Bejondakiola Bilbao'ri! [...] Catalunyarrak bai, gogor ta sendo, guztiok, beren izkuntzaren alde; euskaldunak ordea... an egon ez balira lez. ¡¡ Ta lotsatu ez!*²²

Beste behin ere, eredugarri deritzo elkarre euskaltzaleak katalanen ekinari. Hartara, Cambó katalanaren jokaera ederresten eta zoriontzen du, euskal ordezkariena gaitzesten duen ber:

La Sociedad Euskal-Esnalea, á la que nada absolutamente importa la actuación política de nadie, pero que no puede menos de ver con simpatía vivísima el modo eficaz con que los diputados catalanes trabajan por la difusión de su idioma, acordó en la última reunión de la Junta Directiva felicitar á Don Francisco de A. Cambó y sus compañeros, por la brillante campaña realizada a favor de la lengua catalana. [...] Mientras los catalanes cumplían su deber luchando denodada-

²⁰ "El euskera y los notarios". LA OPINIÓN DE UN NOTARIO, *Euskal Esnalea*, 5 (1911), 69 eta 70. orrialdeak.

²¹ "Conclusiones aprobadas en el gran batzar organizado por la sociedad Euskal-Esnalea", *Euskal Esnalea* (1916), 93. orrialdea.

²² "Cambó Jaunari agurra", *Euskal Esnalea* (1916), 198. orrialdea.

*mente por la lengua catalana, los vascos, marmóreos, glaciales, callaron con silencio de muerte...*²³

Ñabardurak ere egiten ditu aldizkariaren idazleak, eta oin-ohar batean azaltzen du Esteban Bilbao karlistaren proposamena, notarioak direla eta:

*En las varias sesiones dedicadas al debate sobre los idiomas regionales, no hubo vasco que chistase, pero aparte del debate, en una de las sesiones, el diputado carlista por Tolosa don Esteban Bilbao, habló para pedir al señor Barroso, ministro de Gracia y Justicia, que se cumpla la ley que obliga á no enviar al País Vasco notarios que no conozcan nuestro idioma. El ministro prometió hacerlo...*²⁴

1917. urtean, *Euskal-Esnaleak* Gipuzkoako Foru Aldundiaren erantzuna jaso zuen, aurretiaz alderatu den proposamenari buruz. Erantzun horretan argi dago notarioek euskara jakitea aintzakotzat hartzeko gogoia:

*... y está dispuesta á insistir ahora y siempre la Diputación de Guipúzcoa en su empeño de lograr que se cumplan debidamente las disposiciones vigentes en materia de nombramiento de notarios para el país vasco, las cuales exigen que los representantes de la fe pública conozcan el euskera, allí donde es habitual el uso de este idioma...*²⁵

Euskararen aldekotasuna, zernahi gisaz, bateratua zen ordurako, beste hizkuntza batzuen mesederako eginahalekin. Aldizkariak oso-osorik jaso zuen, urte horretan, Catalunyaetik etorri zitzaion mezua, hango Biltzar Juridikoak luzatua, hara bertaratu eta gai askoren eztabaidan jarduteko. Agerikoa denez, horien artean ere bazen notario eta eskualdeetako hizkuntzen etorkizuna:

La Academia de Jurisprudencia y Legislación de Barcelona, cree que ha llegado el momento de proceder á la organización jurídica de España, en forma que garantice el respeto á las diversas espiritualidades que conviven en su territorio con la que informa hoy la legalidad vigente.

A este efecto ha acordado reunir en asamblea en Barcelona, á las genuinas representaciones de cada una de ellas, á fin de que, puestas en contacto, puedan trabajar mancomunadamente para la más adecuada realización de este objetivo. [...] Que los juzgadores y los depositarios de la fe pública hayan de conocer el idioma de los actuantes... son cues-

²³ "Felicitación a Cambó", *Euskal Esnalea* (1916), 206 eta 207. orrialdeak.

²⁴ "Felicitación a Cambó", *Euskal Esnalea* (1916), 207. orrialdea.

²⁵ "La Diputación de Guipúzcoa", *Euskal Esnalea* (1917), 15. orrialdea.

*tiones de interés nacional y éste no es patrimonio de tecnicismo alguno*²⁶.

Zuzeneko aldarria, beraz, Bartzelonatik etorri zena. Berandukoa, menturaz, notario-araudiaren eraberritzeak urte berean erakutsi zuena aintzat hartuz gero.

4. 1917. URTEKO ARAUDI-ALDAKETA: EUSKARAREN ZOKORATZEA

1917. urteko araudi berriaren testuak bazterrean utzi zuen aspaldiko zazpigarren artikulua. Orobat, eskritura publikoaren testuan euskara sartzea. Formula berria zekarren araudiak, eta historian sarritan gertatu izan den bezalaxe, luze iraun zuen horrek, gaur egungo araudian eragina izan arte.

Hona formula berria:

Artículo 210. Las escrituras matrices se redactarán con arreglo al artículo 25 de la Ley, usando un estilo claro, puro, preciso, sin frase o término alguno oscuro ni ambiguo y observando siempre como reglas imprescindibles la verdad en el concepto, la propiedad en el lenguaje y la severidad en la forma.

Cuando se hubiere de insertar documento, párrafo, frase o palabra de otro idioma o dialecto se extenderá inmediatamente su traducción, o se explicará lo que el otorgante u otorgantes entienden por la frase, palabra o nombre exótico. Están fuera de esta prescripción las palabras latinas que así en el foro como en el lenguaje común son usuales y de conocida significación.

Tambien podrán los Notarios testimoniar por exhibición documentos en latín o en cualquier otra lengua pero en este caso se entenderá que su fé se refiere solamente a la exactitud de la copia material de las palabras y no a su contenido.

En el caso del párrafo 3º del art. 25 de la ley, los Notarios explicarán en su dialecto particular a los otorgantes y testigos la escritura extendida en castellano, si hubiere alguno que no entendiere este idioma.

Si lo considerase necesario, el Notario en los actos inter vivos podrá valerse de otras personas vecinos del lugar donde se autorice el documento, designadas por el otorgante, que, conociendo el castellano,

²⁶ "Asamblea de organización jurídica", *Euskal Esnalea* (1917), 242 eta 244. orrialdeak.

hable el dialecto de los otorgantes o testigos , haciéndolo constar en el documento.

[...]

Azkar zabaldu ziren euskaldunen artean xedapen berriaren kontrako kontu-arrazoia. Protestak ere alde askotatik etorri ziren. Legelariak nahiz foru-aldundiek behin eta berriro errepikatu zituzten euren nahiak, notarioen izendazioetan euskara kontuan hartzeko²⁷.

Horietako bi alderatuko dira hona, bitzuoak erakusten baitute garai hartako giroa, Espainiako estatuan mintzaira gutxituen herrialdeek batera lan egitekoa.

Lehendabizi datoz Esteche eta Galarza bizkaitarrak. Eurak izan ziren Bartzelonako bilkura juridikoan (1918), 1917. urteko notario-araudiaren formula berria gaitzetsi ondoren, proposamen zehatzak egin zituztenak, aurreko araudi-egoeraren lerrakeratik:

1º Restablecimiento de las disposiciones legales que exigen, en los aspirantes a Notarías, el conocimiento del idioma o dialecto usual en todo o parte del territorio de su demarcación.

[...]

3º Justificación de esta circunstancia antes de empezar los ejercicios de oposición. [...]

4º Los medios de acreditarlo serán, o el documental, mediante certificado expedido por Centro o Academia oficial, o el oral, sometiendo al aspirante a un examen ante Tribunal competente.

5º El Tribunal se constituirá en la respectiva localidad en que se halla el Colegio notarial, designando para formarlo a notarios de reconocida autoridad en el uso del lenguaje de que se trata, que residan dentro de la demarcación.

6º Señalamiento de los Distritos notariales en que se declara obligatorio el conocimiento de idiomas o dialectos determinados, oyendo antes a las Diputaciones. Bilbao, 30 de marzo de 1918²⁸.

Bigarren, aipagarri izan daiteke Bonifazio Etxegarai legelari euskaldunak esandakoa, *Euskal Esnalea* aldizkariak atondutako hitzaldi-sortan. Urtea 1919 zen, eta hitzak, berebizikoak:

²⁷ EUSKALTZAINDIA: *Euskararen liburu zuria 1*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1978, 391. orrialdetik 393. erakoak.

²⁸ ESTECHE, J. M^a. eta GALARZA, A.: «Los Notarios y los idiomas y dialectos regionales», *Revista jurídica de Cataluña*, XXIV (1918), 283. orrialdea.

Euskeraz ez dakiten Latziñaldari erdaldunak Euskalerrriyan badirala, badakigu; eta badakigu ere oen aurrian egiten dirala azkenai edo testamentuak. ¿Nola? Ori ere badakigu: baikunlariak esaten du bere naitasuna zer dan eta ziñaldari edo testigu batek biurtzen du erderara onek euskeraz esaten duena, eta Latziñaldariak ipintzen du testiguari entzun diyona. Eta berriro galdetuko det: ¿zer sinismen emango du Latziñaldari orrek? ¿Baikunlariaren naitasunarena edo ziñaldariaren esaeraena? Baña oraindik gauza gogorragua gertatu liteke, jeta ainbat tokitan gertatuko da! Latziñaldariak ez daki euskeraz; baikunlariak eta ziñaldariak ez dakite erderaz; erritik urruti dagon baserri batian ura bizi da; auzuan ez dago iru ziñaldari ayeke beste gizasemerik. ¿Nola egin liteke onela azkenaia eta nola eman lezake Latziñaldariak sinismena? Ziñaldarien esaeragatik, ez, oek erderaz ez dakitelako. ¿Zeñek biurtuko ditu erderara baikunlariak euskeraz esaten dituen itzak? ¿Zeñek? Latziñaldariaren eskribientiak. Azkenik galdetuko det: ¿zer sinismen eman lezake onela Latziñaldariak?»²⁹

5. 1921. URTEKO ARAUDIA: ARO BERRIAREN AITZINDARIA

Kritikak kritika, laburra izan zen 1917. urteko araudiaren indarraldia. Horren ostean, jakina, 1921. urteko araudia eta horren 232. artikulua etorri ziren:

Artículo 232. Cuando el documento se otorgue en territorio español en el que se hable lengua o dialecto distintos al castellano y todos o alguno de los otorgantes sean naturales de aquel territorio, sometidos a su derecho foral y no entiendan el castellano, el Notario, siempre que comprenda el idioma o dialecto de la región y lo soliciten los interesados, redactará el documento en castellano y en la lengua o dialecto de que se trate, a doble columna, para que a un solo golpe de vista se lean y comprueben una y otra redacción, procurando que gráficamente se correspondan en cuanto sea posible y cerrando las líneas que por ello queden en blanco a la terminación de la columna que resulte menor.

²⁹ ETXEGARAI, B.: «Euskaldunak, euskeraz», *Itzaldiak*, Martin, Mena eta C^a.ren etxean, Donostia, 1920, 71 eta 72. orrialdeak.

Argi zegoen euskararentzako murrizketa: Gipuzkoa osoan eta Bizkaiko hirietan foru-zuzenbidea lege-aginduz aitortua ez eta ezinean artikulu horren gauzatzea; notarioak euskara jakitea nor bere nahiaren arabera neurtu, inolako egiaztatze eta eskakizunik gabe... Oro ziren euskarari bidea zailtzeko moduak.

Batzuek, dena den, formula horri ere erreparoa jarri behar, Espainiako batasunaren izenean. Aipuan jar dezagun Sancho-Tello notarioaren iritzia, bere *Redacción de Instrumentos Públicos* eskuliburuan (1926):

*No obstante lo expuesto, cediendo a exigencias de ciertos sectores de regiones privilegiadas (no a las legítimas aspiraciones de la parte sana de esas comarcas), y sentando un precedente atentatorio a la unidad de la función, reflejo de la unidad de la patria, el Reglamento dispone que cuando el documento se otorgue en territorio especial en el que se hable lengua o dialecto distintos al castellano y todos o alguno de los otorgantes sean naturales de aquel territorio, sometidos a su derecho foral y no entiendan el castellano, el Notario, siempre que comprenda el idioma o dialecto de la región y lo soliciten los interesados, redactará el documento en castellano y en la lengua o dialecto de que se trate, a doble columna, para que a un solo golpe de vista se lean y comprueben una y otra redacción, procurando que gráficamente se correspondan en cuanto sea posible y cerrando las líneas que por ello queden en blanco a la terminación de la columna que resulte menor*³⁰.

Notario-araudiak, horratik ez zuen egundo ere jaso 1917. urteko araudiaren aurreko esamoldea. Modu horretan ezabatu zenak ekarri zuen, gero ere, eskabide berezia, II. Errepublikaren garaian (1931-1936), aurreko bidetik ibiltzeko. Giroa, esan beharrik ez badago ere, bestera zetorren, eta gaztelaniaz aparteko hizkuntzen ofizialtasuna zen oihu berria. Horrek sortu zuen, Catalunyan bereziki, notario-agirietan katalana erabiltzeko aukera. Euskararen kasuan, Eusko Jaurlaritzaren ekina azpimarratu behar, aldi laburrez iraun bazuen ere.

Harrezkerokoak ere, gozoak ez euskararentzat notario-kontuetan. Egungoetan, bistan da, letra larriko ofizialtasunaren azpian, euskararen egoerak ez du gainditu jokaera zokoratzailer eta bazterrean uztekoa. Edu horretan, inongo lege-testutan ez da aipatzen, Hego Euskal Herriko euskaldun lurraldeetan behinik behin, euskararen premia notarioen izendazioetan. Agiri

³⁰ SANCHO-TELLO Y BURGUETE, V.: *Redacción de instrumentos públicos*, Editorial Diario de Valencia, Valentzia, 2. argitaraldia, 1916, 30 eta 31. orrialdeak.

publikoak euskaraz egiteko aukera aitortu bai; ez, jakina, agiri publiko horiek idatzi behar dituztenen heziketa- eta formazio-prozesuetan euskarari leku ematea. Harrigarria ote? Zoratzeko modukoa, menturaz? Ez bata, ez bestea, ezpada bizi-bizia, gizarte honek dituen hainbat kontraesanen antzera.

Beharbada, garrantzigabeko kontuak dira hauek, eta denborarik galtzea merezi ez dutenak, azken-azkeneko, punta-puntako eta azaleko aipuak ahantz ez ditzaten gure politiko ahalsuek. Halakoek, hain justu ere, zailtzen eta oztopatzen dute euskara mintzodun frankoren eguneroko bizimodu euskalduna.

Horiez ere, beste batean jardun beharko da. Gera bedi, behingoz, honako hau, euskararentzako zirrikitu meharra, XIX. mendetik XX. mendera igaro zena. Hura itorik bukatu zen, estatuaren antolakuntza zabalean.

Historia labur hori, alabaina, ikasgai zaigu, batez ere nabarmentzeko nola ibili ziren dantzan, euskaldunen hizkuntza-eskubideen gainetik, beste interes batzuk. Horiek erakarri zuten, esan legez, notario-agirietan euskararentzako argi-izpitxoak itzaltzea.

Euskaldunok, ohi legez, aho bete hortz.